

Nola idatzi blogean

Posta mezua idatzi eta bidali

Blogean artikulua idatzi nahi baduzue, bide bat baino gehiago erabil dezakezue:

1. artikulua idatzi eta helbide honetara **postaz bidali**: **sagardegi(puntu)idatzi(a bildua)blogger.com** (zuzenean argitaratuko da)
2. artikulua Mikel edo Patxiri **postaz bidali**, haiek editatu dezaten
3. artikulugile gisa izena emateko eskatu Patxi edo Mikeli. Horrela, zuen izenpean editatu ahal izango dira artikulua. Ohiko artikulugileentzat erabiltzen da bide hau.

Erabiltzaileentzako gomendioak

- **gogokoetan sartu**. Komeni da blogaren Interneteko helbidea sartzea gogokoen karpetan ("Favoritos"), bloga laster bilatzeko. Hona hemen helbidea: <http://www.gifami.blogspot.com/>

Postaz idazteko kontuan hartzekoak

Mezua idazten duzuenean, puntu hauek kontuan hartzea garrantzitsua da:

- **izenburua jarri artikuluari** ("gaia" edo "asunto" laukian jarrita)
- **testuaren ezaugarriak gordetzen dira blogean**:
 - artikulua postaz bidaltzeak aukera ematen du blogean Internet helbideen eta posta helbideen lotura egiteko
 - mezuan idatzitako letra lodiak ("negrita"), etzanak ("cursiva") eta azpimarratuak ere gordetzen dira blogean
- **artikulua sinatu** bukaeran, igorlea nor den jakin dadin
- **blogaren posta helbidea gorde**. Artikuluaren bidalketa errazte aldera, komeni da Outlook-en helbide libretan gordetzea.

Artikuluaren sailkapena

Artikulu guztiak bost ataletan (gaiak) sailkatuko dira:

- **Itzulpena eta terminologia**. Itzultzeko orduan zalantzazko gertatzen diren esapide, termino, laburtzapen, izendapen eta abarri buruzko atala. Aztergai eta iritziak izango dira normalean.
- **Gramatika**. Gramatikaren hainbat alorri buruzko atala: morfologia, sintaxia, ortotipografia...
- **Berrikuspena eta estiloa**. Itzulpengintza mintegiko kideen testuen berrikuspen eta estiloaren azterketari buruzko atala.
- **Ildoa**. Artikulugileek gai jakinei buruz egindako azterlanak.
- **Saski-naski**. Eduki askotako atala: ikastaroak, deialdiak, lanbideari buruzkoak, jakin beharrekoak...

Adi: ez bazaude ohituta blog batean idaztera, ez zaitez kezkatu. Egin ezazu froga artikuluen zirriborroak bidalita. Ez izan kuidadorik: froga gisa bidalitako mezua ezabatuko ditugu berehala.